



uztarria

Azpeltiko herri aldizkaria



XOXOTEKO ATERPEA IREKIKO AL DA?

Osasun Sailak jan eta edaten ematea
eragotzi eta irail bukaeratik itxita dago

kultura

Uztarriak lau
azpeitiarren
biografiak
aterako ditu

musika

Fundiziyuek diska
berria kaleratuko
du Durangoko
azokan



elkarrizketa

Itziar Goenaga:
«Aixkorañ tio
Joxemaik erakutsi
zinañ»

Udazkenien goxo goxo ibili nahi baen

Babesa

gazte moda

Xanjuandei auzun gatzauden!

Tel. 934 15 13 69 • Urbitarte, 9 • AZPEITIA

Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa Babesa

«Euskara ezpada konplitu, euskaldunek berek dute falta» (Atsotitza)

ale honetan...

4-5-6: Joxe Luix Aizpuru, Xabier Alday, Eli Arangurenen iritziak, Andoni Salegiren marrazkia...

7: Uztarria Kultur Koordinadorak lau azpeitiarren biografiak egingo ditu hurrengo bi urteetan.

8-9: Udala. XVIII. Euskal Antzerki Topaketak eta Udazkenean Abesbatzak.

13: Uztarriak urtebete; bazkideen lehen batzarra egin zen pasa den hilabetean.



14-15-16-17-18-19: Xoxoteko aterpea itxita dago azken hilabetean; irekiko al da?

22-23: Elkarrizketa. Fundiziyue musika taldeak diska kaleratuko du abenduan.



24: KMK'00. Balorazio positiboa egin dute antolatzaileek, nahiz eguraldi txarra egin.

25: Erniarraitz bertsozale elkarteak, bertso eskolak abian jarri ditu; besteak beste, herrian.



30: Elkarrizketa. Itziar Goenaga aizkolaria: «Aixkoran ikixi ein ber den».



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

- Azpeitiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagunduriko aldizkaria

uztarria
Azpeitiko herri aldizkaria

AKUILLA



Fernando Morillo

Idazlea

Kilolitroak

Eguraldi hotza. Tristeia. Zeruia izugarri lainotu da azkenaldian eta gu ere antzera gabiltza. Lainotsu. Udazkenagatik izango ote da? Azken batean, udazkenak beti izaten du ilun itxura. Edozein modutan, tristurak badu bere aurpegi ederra ere. Behintzat, gero kontraste gisa jokatzeko. Eta hori, gutxi bai, baina bada zerbait.

Bestalde, proposamen berri bat entzun izan dut han-hemenka. *Kilometroak* festarekin dago lotuta. Zehazkiago, goiz osoan egin zigun euri jasarekin. Eta proposamena: *Kilometroak* deitu beharrean, hemendik aurrera *Kilolitroak* bezala izendatzea. Bota zituenak ikusita —eta jasanda—, beharbada egokiena izango litzateke. Horrela, Ikastola, urratsez urrats eraiki beharrean, litroz litro jasoko genuke. Aproposagoa, zalantzarik gabe. Hori bai, gero, adarra jotzeko, eguraldi ero honek lehortea ekarriko ez baliagu, behintzat.

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza 4, 2. ezkerria;
Telefona: 150358. Faxe: bera
Posta kutxa: 227, Azpeitia
Publizitatea: Tel: 150358
Posta elektronikoa:
uztarria@topagunea.com
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.500 ale
Lege gordailua: AS / 6 / 08255 / 1999

UZTARRIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

amuko zubitik

Ana Rosari gomendioa

Joxe Luix
Aizpuru



Azken egunetan, askotan galdetu diot neure buruari zergatik suspertu nauen horrenbeste Garzonen azken operazio poliziako-politiko-mediatikoak. Euskal Herrian atxiloketa faltarik ez dugu, baina azken sarekadak argi gorri guztiak piztu dituela iruditzen zait. Norbaitek esango dit argi gorrien bonbilak aspaldi erre zirela eta euskal disidentziaren aurkako errepre-sioa ez dela gaur goizekoa... Behar bada, baina nire inguru hurbilenak ere antzeko sentsazioa izan duenez lerrotxo

hauek idaztera ausartu naiz.

Sabino, Gara egunkari-ko kazetaria, bere semea-ren koartora hurbildu omen zen korrika eta pre-saka Poliziaren zapata hotsak atean somatu bezain pronto. Semea, Haikako ingurune-ko omen-edo, —tarteka mar-teka, atxiloketaren bat edo beste jasan dezake-en arrisku taldekoa—, eta aita erabat arduratuta. Aho bete hortz eta zurbil geratu omen ziren aita-semeak, poliziaren begi-radek aitaren argi bildu zirenean. Ondorioa denontzat ezaguna:

Sabino, barrura.

Atxiloketak azaltzeko Garzon epailearen kon-klusio-autoa erabiltzeko asmoa dut nire lehen terrorezko nobelan. Kazetari ezagunek ohikoa omen dute, testuak bate-tik eta bestetik prestatuta hartzea, beraz, nik zerga-tik ez? Plagio zurrumu-rrua zabaltzen bada, ordenadoreen ezagutza kaskarra argudiatuko dut... «Estatuaren ordenu konstituzionala zalantzan ipini izana nortasun agiri euskalduna bultzatzeaga-tik». Ez iezaidazue esan ez denik plagiatzeko modukoa.

gutunak

Gezurak eta inposaketak

Uztailaren amaieran Kaito Telebista dela-eta eginda-ko salaketa berretsi nahi dut. Honekin batera, argi utzi nahi dut ez zela Unai Lizaso EHko zinegotzia izan guri informazio hau eman ziguna, Kaito bera izan baitzen niri telefonoz zein debeku zuen (udala-ren jarrera kuestionatzen zuten mezua ez zabal-tzea), eta debeku hau nork ezarri zion (Nekane Larrañagak) garbiki adie-razi zidana. Eta hau as-makeria hutsa bada, eta gazteok gure mezuak za-baltzeko askatsun osoa badugu Kaito Telebistan, zergaitik ez dituzte eman Kaito prentsaurreko har-tara agertu ez izanaren arrazoiak? Alderdi politi-koek Kaito Telebistan izan

behar duten proportzio berdina aipatu dute, baina ze zerikusi du herriko gaz-teontzat lokal bat eskatze-ko emandako prentsau-rreko hark alderdi politiko-ekin?

Gazte lokalaren ingu-ruan Azpeitiko Udal Go-bernuak izan duen jarrera inposatzailea, eta bereziki EAJ eta EAKo zenbait ki-dek (Bastida, Beobide, Nekane etab.), aurrez erakutsi duten talante au-toritarioaren adibide bat gehiago besterik ez da.

Orain, udala bere aldetik lokal baten inguruko proiektu bat lantzen ari omen da; uztailaren azke-netan izan ziren negozia-keketan garbi geratu zen proiektuak adostua izan behar zuela. Proiektuak gazteon oneritzia izan be-har duela agerikoa da, eta

datua

Loiolan uztailetik urria arte Iraurgi Lantzenek Loiolan izan duen informazio bulegora 6.218 turis-ta gerturatu dira.

tugun beharren inguruko azterketa serio bat egite-ko, mahai batean jarri eta denontzat egokiak izango diren irtenbideak landuz. Guk atea zabalik ditugu; udalak?

Eneko Ibarguren

ez dugu aurpegia garbi-tzeko egin dezaketen proiekturik onartuko.

Garbi utzi nahi dut ere, Azpeitiko gazteek behin baino gehiagotan egin du-tela udalarekin elkarlane-rako apostua; baina Az-peitiko gazteok lantzen di-tugun arazoaren inguruan udala erakusten ari den pasibitateak elkarlana ezi-nezkoa egin du, inora ez garamatzan konfronta-mendu egoera batean murgildu garelarik.

Bada garaia gazteon di-

‘Azpeitiko jaiak’ liburua eta Julian Barrenetxea

TXAKEL enpresak, Az-peitiko Jaiak liburuaren arduradunak, Julian Ba-rrenetxea Abesbatzak li-buruan aipamen luzeagoa merezi zuela onartzen du. Festetan abesbatzak egi-ten duen lana funtsezkoa da, uztailaren 22ko Az-pe-i-tiko Jaiaken aurkezpen-ea egiaztatu zen moduan.

TXAKEL komunikazio enpresa

Uztarriaren oharra: gutunek, ahal dela, motzak izan behar dute, bestela UZTARRIAK mozteko ahalmena izango du. Kartak bidali hona: UZTARRIA, 227 posta kutxa, Azpeitia. Edo, UZTARRIA, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre. Edo, posta elektroniko honetara: uztarria@topagunea.com

azketako ura



Agur

Xabier
Alday



Ez dut arteaz ulertzen eta ezin izaten dut arrazonatu zergatik gustatzen zaidan arte-lan bat.

Ezagutzen ditudan euskal kulturaren arte espresioak, orokorrean, ikusle hutsa izatera gonbidatzen naute, ajente pasiboa, eskaintza zehatz bat jaso ondoren txalo egin edo isil-isilik alde egiteko bezain-bestecko askatasun mugatuaz goza zezakeen morroia.

Artea, erakusteko soilik balio duen espresio bidea bezala ulertzen baitugu. Erabilgarritasuna ebatsi diogu, gutxi gora behera,

gizarte geroz eta teknokratoak jainkoa erailtzea erabaki zuen garai bere-tsuan.

Eta aldi berean, kultur-espresio ofizialetako artistak, demagun eskultoreak, margolariak, idazleak, musikariak, etab., edo zertaz ulertu eta hutsik egiten ez duten banako Jainko txikiak eta ukiezinak bihurtu ditugu.

Pentsa azkenaldian komunikabide guztietan nor ikusi duzuen, mamuek be-larrira Euskal Literaturak etorkizun bikaina duela esan diotela kontatzen.

Zuetako inork esan lezake liburu batean aurkitu di-

tuen hitzok, koadro bateko paisaiak, kaleetan eta parkeetan, neurritz kanpo, edozein moduz abandonatutako harritzar eta burdinek norbere bizitza mailaren kalitatea eta urkoarena hobetzen lagundu duenik?

Lapurreta guztietan bezala, onura gutxi batzuentzat izan da.

Joan den asteburuan, azkoitiar batzuegandik artea egunero erabiltzen ditugun tresna eta lanabese-kin uztar litekeela ikasi dut. Lezio ederra: horrela, kultur-espresio guztien artean ezdeusena, zalan-tza izpirik gabe, literatura dela komentzitu naiz.

otso beltz

Andoni Salegi



gaia emanda

Xoxoteko aterpea

Kronikatxo bat egin nahi nuke nere bi bertso hauetan zer esan pranko dadukan gaia iruditzen zait benetan Xoxoten degun refujioak bukaera omen bertan lojidak nola ez dun tokirik gaur eguneko legetan lenago itxi beharrekoak bazeuden herri honetan

Sanidadea gora ta bera hori daukagu modako baina ain gaizki zegon edo ez herrian galde beharko aste burutan hiru lau salda eta bi hamarretako beste batzuek mila laguni emanaz dabiltz galako asko bezela zapaldu dute oso txikia dalako

Anjel Larrañaga

Pobreziak emakume aurpegia du

Amaitu da jada 2000. urteko emakumeen mundu mailako martxa, baina emakumeen oinazeek bizi-rik diraute. Bide berri honetan eskakizun garbi batzuk plaza-ratu ditugu:

-Pobrezia eta indarkeria sexistarekin amaitzea.

-Gizarte instituzioek egoera honekin amaitzeko neurri eraginkorrak hartzea.

Martxa hau aurrera eramateko, mundu osoan zehar emakume ugari mobilizatu dira, zapalkuntza honek munduko txoko guztiak zeharkatzen dituelako lekuan lekuko, garaian garaiko, etengabeko kate ilun eta suntsitzailea erai-kiz. Euskal Herrian ere martxa hau isladatu da. Hego nahiz Iparraldeko emakumeek bat egin dugu helburu hauek kalera-razeko garaian, zeren jasa-ten dugun egoera faktore eta sustrai berdinek errotzen du-te. Pobreziak emakume aurpegia dauka, eta errealtate hau gure auzo eta herrietan gero eta gogorrago isladatzen da. Kontuan hartuta Azpeitiko egoera, ez pentsa saldu nahi diguten egoera sozioekonomikoaren gorakadak emakumeontzat onurarik ekartzen duenik. Horra hor, langabezia-ren datuak; herrian langabezia-n dauden %90, gutxi gora behera, emakumeak dira, eta honi gehitu behar zaio emakume kopuru handi batek ez duela izenik ematen INEMen. Honela, esan daiteke herri honetan zabaldu nahi duten lan-gabezi ezaren ideia ez dela



erreala. Bestalde, lanean ari diren emakumeen artean, behin-behineko kontratuak, soldata eskasak (gizonezkoekin alderatuta, parekatzen ez direnak: %30 gutxiago kobratzen dugu), ezkutupeko ekonomia-aren barnean sailkatzen diren lan motak... dira emakumeak topatzen ditugun aukera bakarrak.

Gainera, pobrezia era eta sektore berriak agertzen dira: ezkongabeak, alargunak, jubilatuak, zeintzu gutxieneko soldata sozialaren azpitik bizi edo eta *irautera* behartuak diren.

Hori guztia ondorioztatzeko, herrian zabaldu genituen in-kesten emaitzak baliatu ditugu.

Gauzak honela izanik, emakumeok zailtasunak eta oztopoak besterik ez ditugu ikusten geure proiektu pertsonalak aurrera eramateko garaian. Gizarte eredu honetan

POBREZIA

Ez pentsa saldu nahi diguten egoera sozioekonomikoaren gorakadak, emakumeentzat onurarik ekartzen duenik.

SEKTORE BERRIAK

Pobrezia era eta sektore berriak agertzen dira: ezkongabeak, alargunak, jubila-tuak, gutxieneko sozialaren azpitik bizi direnak.

KONPROMEZUA

Udalean mozio bat aurkeztu dugu, konpromezu eta pauso zehatzak ematea eskatu diogularik.

emakumeok menpeko bihurtu nahi gaituzte.

Menpekotasun sozial, politi-ko eta ekonomiko honek era guztietako bortizkeriak (fisiko nahiz psikologikoak) jasatera garamatza. Eta bortizkeria sexistak askatasuna eragotzi eta murrizten du. Egunerokotasunean gure eskubideak zapalduak direla nabarmendu nahi dugu, gizarte osoaren utzikeria eta konpromezu eza salatuz.

-Nor babesten du legeak?

-Zer egiten du gizarteak arazo hauei konponbideak emateko?

-Zergatik dira emakumeak isolamendua eta gartzela sufritzen dutenak beraien etxeetan?

-Hau al da gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna?

Egoera honek erantzule zehatzak ditu eta gure erabaki eta aukerak askatasunez hartzeko baldintzak bermatu behar ditugu. Instituzioak neurri eraginkorrak bultzatzera derrigortuak egon arren, Azpeitiko emakumeen bizi baldintzak ez dira hobetu. Horregatik, Azpeitiko Udaari konpromiso eta pauso zehatzak ematea eskatu diogu mozio baten bidez. Gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunean oinarritutako herria erai-kitzeko. Martxan jarri behar dugu emakumeon justiziazko aldarrikapenak gizarte osoarenak bihurtu daitezen.

Oharra: Eskerrikasko inkestak bete dituzten emakume guztiei.

Eli Aranguren

Izarraitzeko Sorginak-eko kidea

Uztarriak lau azpeitiarren biografiak egingo ditu

Takolo, Otaegi, Imanol Elias eta Joxe Lizaso dira pertsonaiak

liburuxketako bertsonaiak

JOXE TAKOLO

Mendizaletasunean aitzindaria izan da.

Joan den abuztuan hil zen, ezustean. Enekoitz Esnaolak egingo du haren biografia.



ANGEL OTAEGI

Frankismoaren kontrako ikur bihurtu zen

Otaegi, 1975ean afusilatu egin zutelako. Liburuxkaren egilea: Iban Arregi.



IMANOL ELIAS

Historialaria, antzerkiegilea, idazlea, alkate ohia... Orain ere lanean gogor dihardu, idazten. Egilea: Mailo Oiarzabal.



JOXE LIZASO

Bertsolari beterano ezagunenetakoa da, eta oraindik kantari dabil. Askok bizitako gizona da. Egilea: Xabier Euzkitze.



Uztarria Kultur Koordinadorak, informazio alorrean herria aberastearren, lau liburuxka biografiko aterako ditu. Joxe Takolo, Angel Otaegi, Imanol Elias eta Joxe Lizaso hartuko ditu pertsonaitzat. 2001ean argitaratuko dira lehen bi liburuak, 2002an beste biak.

J. Alberdi

Uztarria Kultur Koordinadorak informazioaren alorrean —herri aldizkaria behin sendotu ostean— beste proiektu interesgarri bat jarri du martxan: azpeitiarrei buruzko liburuxka biografikoak. Hala, eta oraingoan, lau liburuxka biografiko argitaratuko ditu hurrengo urtetik aurrera, euskara hutsean, eta Joxe Urbietak *Takolo*, Angel Otaegi,

Imanol Elias eta Joxe Lizaso hartu ditu Uztarriak pertsonaitzat (Lizasorena baliteke Euskal Herriko Bertsozale Elkartearekin batera egitea). «Direnagatik edo izan direnagatik hautatu ditugu, bakoitza bere esparruan edo esparruetan garrantzitsua delako edo izan delako Azpeitiko herriarentzat (baita kanpora begira ere). Eta aktualitateari eman diogu garrantzia», dio Uztarria Kultur Koordinadorak. «Bada beste azpeitiarrik biografiarik mezezi duenik, baina haietako batzuei buruzko lanak badaude edota argitaratuko dira, eta beste batzuen inguruko zerbaitekin, agian egingo da hurrengo batean». 2001. urtean Takolorena (apirilean) eta Angel Otaegirena (irailean) argitaratuko ditu, eta 2002. urtean Imanol Eliasena eta Joxe Lizasorena.

Liburu aldetik Azpeitian, «salbuespen garrantzitsuak sal-

buespen», kanpora begirako lanak egiten direla dio Uztarriak —«beren garrantzia azpimarratuz», eta produkzio aldetik «hutsune hori ikusi eta Azpeitira begirako produkzioak merezi duelakoan egingo ditugu liburuxka hauek, herria informatiboki aberasteko betiere».

Liburuxka bakoitzak 150 bat orrialde izango ditu, formato txikian, 1.200-1.500 aleko tiradarekin, eta bakoitzaren aurrekontua 700 mila pezetakoa da; %55 erakunde publikoen bidez finantziatu nahi da (Udalari liburuko 175.000 pezeta inguru eskatuko zaizkio). Bestetik, pare bat iragarle garrantzitsu sartu nahi dira ale bakoitzean, eta elkarte batzuei ere eskatuko zaie dirulaguntza. Liburuak oso modu onean erosi ahal izango dira; UZTARRIA herri aldizkariako bazkideek, ordea, doan jasoko dituzte liburuak.

Egin harpidedun edo bazkide UZTARRIAN
(harpidedun doan; bazkide urtean 3.000 pezeta soilik)



Bidali hona zeure datuak: 227 posta kutxa Azpeitia, edo Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre. Bestela, 943 15 03 58 zenbakira deitu edo zenbaki-fax horretara bidali. Izena eta bi abizen:
Helbidea:
Kontu korronteko 20 zenbaki (bazkide bazara):.....

Euskal Antzerki Topaketak azaroan hasiko dira

Talde profesionalak izango dira nagusi aurtengo edizioan

► Azaroaren 4an emango zaie aurtengo hasiera Euskadiko Euskal Antzerki Topaketei, nahiz eta azken urteetan urrian hasi ziren ► Berrikuntzak ere izango dira: kale antzerkia, esaterako ► Aurtengoan omenaldia Gabriel Arestiri eskainiko zaio.

Udala

Bi milagarren urteko udazkeneko Euskadiko Euskal Antzerki topaketak hastear ditugu jadanik; azaroaren 4an hasi eta abenduaren 21a, Santo Tomas eguna arte, luzatuko dira. Azpeitian ospatzen diren euskaraz eginiko antzerkien topaketak Euskal Herriko antzerkizaleon topagune bilakatu dira, eta urtez urte aurkeztzen den eskaintza osatuz eta hobetuz joan da.

Aurten, Azpeitiko Udalak antolatutako topaketetan, antzerkiaren zaletu diren guztiek aurkituko dute gustoko zerbait, antzerki eskaintza inoiz baino zabalagoa eta anitzagoa baita.

Sei estreinaldiak

Bederatzi talde profesionalen antzezlanak taularatuko dira, horietatik sei talderen lanak estreinaldiak izanik. Besteak beste, gure artean jada arras ezagunak diren, Bederen 1, Tanttaka, Maskarada eta Tricycle aipatu daitezke. Ohi bezala, euskal antzerki talde eta aktore ezagunek ikustez gain, antzerki amateurrek ere bere lekua izango du. Soilik bi talde amateurrek parte hartuko dute topaketetan, baina bi taldeek euren azken lanak



lazko Antzerki topaketetako irudi bat..

nak antzeztuko dituzte; hots, bi estreinaldi amateur ikusiko ditugu.

Berrikuntza moduan, Sarobe taldeak Opera batekin irekiko ditu topaketak. Halaber, abenduaren 16an Azpeitiko Musika Bandak, Itsasi Dantza Taldeak eta

Julian Barrenetxea Abesbatzak Aretxabaletako abesbatzarekin batera *Baserria* Zartzueta estreinatuko dute Zelaitxo Antzokian. Beste berrikuntza garrantzitsu bat kale antzerkiarena izango da; modalitate horretan, helduentzat Trapu Zaharrak eta umeentzat Kukubiltxo taldeak arituko dira.

Irrati lehiaketa

Urteroko omenaldiaren sailean berriz, Gabriel Aresti idazle bilbotarra omenduko da, ekintza ezberdinen bitartez. Esaterako, irrati lehiaketaren gai nagusia Gabriel Aresti bera izango da.

Euskal Herriko ikastetxe ezberdinek ere, urtero bezala, euren antzerki lanak taularatuko dituzte azaroaren 27an hasi eta 30a arte, Eskola Antzerki Topaketen barnean. ■

Azpeitiko bandak, Itsasi dantza taldeak eta Julian Barrenetxea abesbatzak Aretxabaletako abesbatzarekin batera Baserria Zartzueta estreinatuko dute

Abesbatzen topaketa udazkenean

Santa Zezilia ospatzeko ekitaldiak antolatu dira

► 'Udazkenean Abesbatzak' deritzon hainbat abesbatzen topaketa tradizio bilakatu da herrian ► Urria eta azaroa bitartean ospatuko da ► Santa Zeziliaren ospakizunerako egitarau berezia pres-tatu da aurten.

Udala

Udazkenean Abesbatzak Azpeitiko Udalak eta Julian Barretxea abesbatzak elkarlanean antolatzen dute. Zeregin nagusia munduan zehar dabilzan abesbatzen erakusgai izatea da, beti ere ingurukoak, Azpeitiko abesbatzak barne, ahaztu gabe. Era honetan, beti izan ohi da tarte-



Udazkenean abesbatzak Frantziskanetako elizan izango dira.

an nazioarteko abesbatza eza-gunen bat,. Besteak beste, Txina eta Poloniako abesbatzak azpeitiratu izan dira aurreko urteetan. Aurten Noruegako *Embla Trundheim* taldeak ireki du *Udazkenean Abesbatzak*.

Nazioarteko taldeez gain, egi-

tarauan Espainiako edota Euskal Herriko abesbatzen ordezkariak izaten da; bide horretatik, azaroaren 18an Hendaiaiko Gaztelu Zahar abesbatzari tokatu zaio aurten txanda.

Julian Barrenetxea Azpeitiko Abesbatza, antolaketa lanetan ibiltzeaz gain, topaketen parte ere izango da; azaroaren 25ean izango ditugu entzun-gai. Hauekin batera, Nemesio Otaño Azpeitiko Abesbatzak ere badu bere tarte, azaroaren 11ean, hain zuzen ere.

Aurtengo edizioan, abesbatza hauek guztiak egun ezberdinetan baina ordu eta leku berean ari-tuko dira: arratsaldeko 19:00etan Franziskanetako elizan. Erabaki honen arrazoiak hurrengoak dira: alde batetik, Frantziskanetako elizan oso ondo entzuten da; eta bestetik, ohitura sortzeko bidea ere bada, antolatzaileen esan digutenez. ■

— udaletxeko gauzak



Danborradarako karrozaren lehiaketa. 2001. urteko Haurren danborradarako karroza, lehiaketa bidez aukeratuko da. Edozein pertsona edo taldek aurrekeztu dezake proiektua;

sortu berria edo norberak sortutakoa izan behar du. Proiektua aurrera eramateko gehienez 1.100.000 pezetako aurrekontua izango da. Lehiaketaren irabazleak 200.000 pezetako saria eskuratuko du.

Azpeitia Iruditan erakusketa. II. Argazki Lehiaketara aurkeztutako argazki onenen erakusketa izango da zabalik azaroaren 11a arte.

Hitzaldiak Aitonena aretoan. Gizartekintza Sailak antolatutako menopausia eta autoestimua-

inguruko hitzaldiak azaro-ko eta abenduko astearte-etan, 18:00etatik 20:00etara, izango dira; *Sexualitatea, gaur egun* izenburupean antolatu den hitzaldi sorta berriz, azaroaren 13, 15, 16, 20 eta 22an, 19:00etan. Bietan Luis Elberdin aditua izango da hizlari.

Harategia Odriozola

Harategi
Especializatua



Arana kalea, 14 - Urrut.: 943 81 10 15

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



gizarte-ekintza
obra social

motxien

Urolaldeko artisten XIX. erakusketarako lanen aurkezpena

Urtero bezala, aurren ere Urolaldeko artisten lanak erakusgai izango dira Antxieta Etxeko erakusketa aretoan. Erakusketan, nahi duten artista profesional eta amateurrek erakutsi ditzakete lanak. Egile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu beharko ditu. Lanak aurkezteko epea azaroak 6tik 10era bitartekoa izango da. Lanak Antxieta bertan aurkeztu beharko dira, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Urola kalean gazteentzako zentru bat martxan jarriko da

13-20 urte bitarteko gazteentzako zentru berri bat irekiko du udalak abenduaren lehenengo asteetan. Urola kaleko 6. zenbakian, gazteentzako zentro berria izango den 250 metro karratuko lokal bat egokitzen ari dira egunotan. Zentrurako dinamizatzaile lanetarako teknikari bat kontratatuko da. Udaleko Giza Zartekintza saila, kaleko bi hezitzaileen bidez, Azpeitiko eskoletako 50 bat ordezkariarekin harremanetan jarri zen, eta klaseetan proiektua eztabaidatu ondoren, euren proposamenak udalera aurkeztu zituzten.

erretratutuan




EH udaleko gobernu batzordetik kanporatua

Pasa den irailaren 27an, Udalbatza Nagusia, irailaren 15ean hartutako erabakiaren berri eta kontu eman zen: Miren Odriozola zinegotzia, udal gobernu batzordetik kanporatua izan zen. EHk prentsaurrean adierazi zuen; erabaki hau «herriarentzat atzerapauso bat» dela eta «bide horretatik tentsioa areagotu besterik ez» dela egiten esan zuen.

Eusko Alkartasuna alderdiko ordezkariak, urriak 14an, larunbata, elkarrizketaren aldeko sinadurak bildu zituzten, herriko epaitegiaren aurrean. EA herrizherri ari da kanpaina aurrera eramaten, sinadurak bilduz. Azpeitian ere, egun hartakoa goizean zehar, sinadura multzoa bildu zuten.

Earen elkarrizketaren aldeko kanpaina



‘Bai Euskal Herriari’ prentsaurrean



INAKI URANGA

Bai Euskal Herriari herri ekimeneko kideek prentsaurrea eskaini zuten, «ekimenaren inguruan

adostasuna eta atxekipe-na» eman dutenen mezuak helarazi asmoz. *Bai Euskal Herriari* ekimena «euskalduna izateko eskubidea aldarrikatzeko tresna» dela azaldu zuten. Ekimenak dituen proposamenen artean, Udalbiltzari euskal norta-

sun agiri nazionala atera dezan eskatzeko sinadura bilketa egiteko asmoa azaldu zuten, besteak beste. Bestalde, ekimenaren inguruan «ematen ari den kriminalizazio egoera» salatu zuten.

Cariñanoren atentatuaren kontrako kontzentrazioa



NEREA URANGA

EAJk eta EAK deituta, kontzentrazioa isila egin zen urriaren 17an,

bezperan Antonio Muñoz Cariñano Espainiako Armadako koronela eta medikuaren aurka ETAK Sevillan egin-dako atentatua salatze-ko. Enparantza Nagusian eguerdian egin zen kontzentrazioa,

eta jende multzoa bildu zen bertan.

motxean

Loiolako informazio bulegoan bisitari gehiago izan dira

Iraurgi Lantzenek —Azkoitiko eta Azpeitiko udalen, Loiolako Basilikaren eta INEM-en laguntzarekin—, uztaila eta urria bitartean turismoari zuzendutako hainbat ekimen izan ditu abian Loiolan bertan. Iaz informazio guneak jaso zituen bezero kopuruarekin alderatuta, aurten Loiolako informazio gunera bisitari gehiago hurbildu dira. Bestelako gida zerbitzuek ere arrakasta izan dute, Iraurgi Lantzenetik azaldu duenez.

OTA/TAO aparkaleku gune berriak herrian

Perez Arregi plaza eta Foru Ibilbideko azoka plaza atzeko aparkalekuak OTA/TAO gune egin ditu udalak. Herriko bixoko hauetan aparkalekua eta denboraren ordainsaria ordaintzeko makina berriak jarri dira. Lehen, herrian OTA/TAO gune bakarra zegoen, herriko plazan.



motxien

Herriko emakumeen egoera aztertzen ari da udala

Udala, Zero Tailer Soziologikoa enpresarekin azpeitiko emakumeen egoera ezagutzeko eta ondoren plangintza bat aurrera eramateko ikerketa bat egiten ari da. Horretarako, zenbait emakume eta herriko taldeei inkesta bat egiten ari da.

XVI-XIX mende arteko kaparetasun agiriak udal artxibategira bueltatu dira

1948. urteaz geroztik Gipuzkoako Foru Aldundiak gordeta izan dituen, Azpeitiko 412 agiri udal artxibategira bueltatu dira. 1988. tik Tolosako Gipuzkoako Artxibategi probintzialean gorde dira XVI tik XIX mende arteko agiriak.

erretratutan

Presoen alde, astelehenero kontzentrazioa



Pasa den urriaren 21ean,

Joxin Arruti preso azpeitiarraren urtebetetze eguna zela eta, herritar multzoa bildu zen Erdi Klean, argazkia atera eta zorionak emateko. Gainera, Joxin Arruti eta herriko gainontzeko preso eta errefuxiatuei elkartasuna adierazi zieten. Bestalde, Senideek astelehenero kontzentrazio isilak egiten dituzte euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko, arratsaldeko 7:30etan herriko Enparantza Nagusian.

IREDE ESTETIKA




- + ESTETIKA OROKORRA
- + TATUAIK
- + MIKROPIGMENTAZIOA
- + SOLARIUM BONOIA (6.500)

- Azken teknologia:
- + LASER BIDEZ BEHINBETIKO DEPILAZIOA:

Ordaintzeko erreztasunak

- + MASAIA: - Linfatikoa
- Antizelulitikoa

ORDUTEGI JARRAIA (9:00-19:30)
Urbite 4, behea AZPEITIA
Tel. 943 15 15 09



IZARRAIZPE
IRAKASKUNTZA ELKARTEA

AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

Bazkideen lehen erabakiak

Urriaren 10ean egin zen Enparanen aldizkariaren batzarra

- ▶ Erabakiak hartzeaz gain, bazkideek erakutsitako zalantzak ere argitu ziren
- ▶ Aldizkaria hamabostean behin ateratzeaz hitz egin zen
- ▶ Uztarriak lehenengo urtebetean egindako ibilbidea ontzat jo zen.

Uztarria

Urte bat bete du dagoe-neko UZTARRIA herri aldizkariak. Horrenbestez, urtean egindako lana baloratu eta aurrera begirako kontuez hitz egiteko, bazkideen batzarra egin zen joan den urriaren 10ean.

Kezka eta zalantza zenbait azaldu eta argitu ziren, baita datorren urtera begirako proposamen batzuk egin ere. Hala, aldizkaria hamabostean behin ateratzearen kontua aztertu egin behar dela erabaki zen.

Taldeek UZTARRIarentzat duten garrantziaz ere hitz egin zuten



Batzarraren momentu bat.

bazkide batzuek. Bestalde, orain arteko harpidedun eta bazkide kopurua dezentekoa dela ondorioztatu ondoren, gehiago nola lortu aztertu zen.

Uztarriaren Zuzendaritza Batzordearen osaera onartuta, eta datorren urteari begirako aurrekontua aurkeztuta, batzarrari amaiera eman zitzaion. ■

Erabakiak

Besteak beste, honokoa nabarmendu zen batzarrean.

Taldeak ◦ Aldizkarian herriko taldeei eman behar zaien garrantzia.

Hamabostekaria ◦ Aldizkaria hamabostean behin ateratzearen kontua aztertu behar dela ondorioztatu zen.



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 / 943 85 22 65
Fax.: 943 85 28 67
E - mail: azkoitia@urola.hezitek.net

Perdilegi, 2
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax.: 943 81 16 94

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

Perdilegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 26 65 / 943 81 37 70
Fax.: 943 81 66 20
E - mail: azpeitia@urola.hezitek.net

YOSUTHERMIK
POLIURETANO, PVC ETA ALUMINIO AROZTEGIA

Irtenbidez beteriko mundua



San Martin, 4 ● AZKOITIA
Tel.: 943 85 15 53



Xoxoteko aterpea noiz arte itxita?

Irail amaieratik Xoxoteko aterpea itxita dago, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eragotzi egin baitu jan eta edaten ematea.

Egun, obrak egin ezean, Xoxoteko aterpeak mendiko aterpe bezala bakarrik funtziona dezake.

NEREA URANGA

Xoxoteko aterpea, ia hilabete da itxita dagoela, irailaren bukaeratik hain zuzen. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailatik helarazitako txosten sanitarioak, aterpeak dituen hutsuneak direla-eta bertan jan eta edaten ematea eragotzi baitu. Manuel Alvarez Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Urola eskualdeko koordinatzailearen esanetan, «guk ez dugu itxi. Xoxoteko aterpeak berez ez ditu betetzen aterpe batek bete beharreko baldintzak, eta horregatik ezin da, orain arte bezala, bertan edan eta jaten eman. Baina mendiko aterpe bezala funtziona dezake; hau da, norberak jana eta edana eramanda, bakoitzak berea prestatuz, mendiko aterpeetan bezala. Eta bertan lo egiterik ere ez dugu eragotzi. Orain arte bezala funtzionatzen jarraitzeko, txostenean aipatutako baldintzak bete beharko dira eta horretarako obrak egin beharko lirateke».

Gaur egun, Xoxoteko aterpearen erabilera Gipuzkoako Federazioaren esku dago, Lagun Onak Mendi Bazkunarekin 1992-2002 urte arteko kontratua sinatuta baitu. Uneotan, Federaziokoak eta Lagun Onak harremanetan jarrita daude, aterpeari irtenbide bat eman asmoz eta aurrera begirako erabakia hartzeko. Hala ere, Imanol Exposito, Gipuzkoako Mendi Federazioko aterpeen arduradunaren iritziz «gehiegizkoak» dira mendiko aterpeek bete beharreko baldintzak, «Osasun Sailekoek, zaku berdinean sartzen dituzte jatetxe bat eta mendiko aterpe bat. Sukaldea, nik neuk ez dut

gaizki ikusten, baina eskuak garbitzeko iturri bat, aldatzeko gela bat eta Kiruri jatetxekoen antzera jantzita egotea eskatzen dute, hori mendian ez da posible. Lurrean zerrautsa zegoela zehazten dute, baina kanpoan euria ari badu, eta lurra bustita badago, atetik sartzen dena ez erortzeko hartzen den neurri egoki bat dela iruditzen zait niri. Azkenean horrelako txorakeriekin egiten dute dena».

Aterpeari konponbidea

Aurrera begira, Federazioaren aburuz, alde guztiekin harremanetan jarri eta konponbidea eman behar zaio aterpeari. «Arrazoia zera da: aterpe bat eduki, gainera orain arte funtzionatu duen bezala —ondo— eta aterpea ixtea... aterpe bat izan eta bera ixtea atzerapauso bat ematea da. Gure asmoa, Lagun Onak, Foru Aldundia eta udalarekin hitz egitea da. Asmoa, ahalik eta azkarren mugitzen hastea da. Aurreneko pausoak, aterpea nola gelditzen den inguruan eman eta zer ideia daukagun inguruan hitz egitea da».

Dagoeneko Xoxoteko aterpearen egoeraren inguruan hainbat bilera izan dituzte alde desberdinek; udalak eta Lagun Onak-eko ordezkariak esaterako. Alejo Uranga,

Manuel Alvarez

(Osasun arduraduna):

«Norberak jana eta edana eman dezake eta bertan lo egin daiteke»


Imanol Exposito

(Mendi Federazioa):

«Aterpe bat izan eta berau ixtea atzerapauso bat da»

udaleko Kirol Batzordeburuak dioenez, «pausu desberdinak eman behar dira aterpearen inguruan eta gure ideia aterpea irekitzea da eta berriro ahalik eta egokien martxan jartzea. Gaia ez dagokio Kirol Batzordeari bakarrik, Ingurugiro Batzordea eta udalari orokorrean dagokion gaia da. Aterpea bera eraiki zenean, eraikitzeko dirulaguntza Foru Aldundiak, Mendi Federazioak, Lagun Onak Mendi Bazkunak eta udalak orokorrean eman zuten».

Hamasei urtean egon da aterpea martxan, eta modu batera edo bestera, erreferentzi bihurtu da. Irekiko al da berriro aterpea?



Xoxoteko aterpea itxita, orain bi aste ateratako argazkian.

Osasun txostena

Aterpearen hutsuneak

Honako hutsuneak ditu Xoxoteko aterpeak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenaren arabera:

SUKALDEA ◯ Jangela eta sukaldea ez daude fisikoki bereizita. Soilik eskuak garbitzeko den konketarik ez dagoela. Ontzi garbigailurik ez, behar bezalako hozkailu sistemarik ez eta intsektuen aurkako beharrezko sistemarik ez daude. Lanerako leku bereiziturik ez dago. Lurrean zerrautsa zegoen. Patata tortilak arraultza freskoarekin egiten dira. Eta sukaldeko langileek kolore argiko arroparik ez dute.

JANGELA ◯ Zerrautsa zegoen lurrean. Motozerra bat ere bazegoen gordeta bertan, eta sabaian hezetasuna ageri da.

KOMUNAK ◯ Komun bakarra dago aterpe osoan eta 40 lagunentzako lekua duen aterpe batentzat ez da nahikoa. Komunak ez dago jangelatik ate batez bereizita eta bertako langileentzat ez dago beste komun bat.

URA ◯ Biltokia txikiegia da eta edangarria egiteko ez da neurririk hartzen.



ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



UROLAKO JARDINERITZA

Azpeitia - Urrestilla bidea
Tel./ Faxe: 943 15 00 85
AZPEITIA

Ander
Uranga

Lagun Onak Mendi Bazkunako lehendakaria



Aterpea **Lagun Onak Mendi Bazkunarena** da.

Egun alde desberdinekin hitz egiten ari dira **aterpearen egoera** argitzeko asmotan.

en, itxita zergatik dagoen edo ireki egin behar den edo ez. Berez, aterpe bezala funtziona dezake. Orduan, hori nola dagoen ez dakigu, eta ezer baino lehen hori zehaztu nahi dugu, une hauetan zein den Xoxoteko aterpearen egoera. Orokorrean hori da gure batzordearen oraingo asmoa.

► **Eta momentuko egoera zehaztu ondoren, aurrera begirako asmoak zeintzuk dituzue?**

Segidan, aurrera begirako asmoen inguruan hitz egiten hasiko gara Lagun Onak-ekook. Ea zer planteamendu ateratzen dugun edota zer planteamendu eman nahi diogun Xoxoteko aterpeari.

► **Orain dela aste gutxi, Osasunak, aterpean jan eta edaten ematea eragotzi du.**

Bai, orain hiru-lau aste jakin genuen txosten horren berri. Txostenean ez da esaten aterpea ixten denik, baizik eta bertan jaten eta edaten ematerik ez dagoela. Orain batekin eta bestearekin hitz egin nahian gabilta. Bestalde, ez dakigu Pello, aterpeko guarda, zer egoeratan dagoen. Federazioarekin hitz egin berri dugu, eta bera Pelloarekin hitz egitekotan gelditu da. Udalarekin ere bilera bat egin dugu Osasuneko txostena eta aterpearen inguruan, baino ez dugu ezer erabaki.

► **Une hauetan zer egiteko asmoa du Lagun Onak Mendi Bazkunako batzordeak?**

Lehenengo, udalarekin eta Federazioarekin hitz egin nahi dugu. Gero, une honetan aterpearen egoera nola dagoen ez dakigu eta horren berri jakin nahi dugu. Aterpea nola dago-

zen; bateko eta besteko komentarioak izan ziren. Udalarekin hitz egitea ere komentatu zen. Ni, lehenengo eta behin, Lagun Onak-eko batzordekoekin hitz egitekotan gelditu nintzen.

► **Batzordean zer jarrera hartu zenuten aterpeko bileraren ondotik?**

Batzordean bertan aterpean hitz egin genuenaren berri eman nuen. Juntan, hamar-hamabi lagun gara eta Osasunak eskatzen dituen neurrien inguruan hitz egin dugu; normala den bezala eztabaidak ere izan dira. Bi-hiru astetan gaiaren inguruan hitz egin ondoren, geuk gauzak hobeto hitz egin eta baloratu behar genituela erabaki genuen. Federazioko aterpeen arduradunari guk hartutako erabakiaren berri eman genion bere garaian.

«**Txostenean ez da esaten aterpea ixten denik**»

► **Egun, Xoxoteko aterpea zeinen esku dago?**

Hamar urterako, 1992tik 2002a arte, Gipuzkoako Mendi Federazioarekin kontratu bat sinatu zen. Kontratu horren arabera aterpearen erabilera Federazioaren esku gelditu zen 2002. urte arte.

► **Nola izan duzue Osasunetik Xoxoteko aterpean hartu den neurriaren berri?**

Guri udaletik etorri zitzaigun Osasun Saileko txostena. Guk irakurri eta Federaziora bidali genuen. Orduan Federazioarekin kontaktuan jarri eta biltzekotan gelditu ginen.

► **Txostena jaso ondoren, aterpean bertan bildu zineten, Federazio-koak eta Lagun Onaken ordezkari bezala, zu zeu.**

Bai, Federaziotik aterpearen arduraduna den Imanol Exposito eta beste gizonezko bat etorri ziren, eta uraren kontuaz-eta hitz egin genuen. Bertan obraren planteamenduren inguruan ere hitz egin

OLAKOR
g o z o t e g i a

UrbiteAuzunea, 1 - 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) - Tfno.: (943) 81 46 65

YOSU THERMIK

POLIURETANO, PVC ETA ALUMINIO AROZTEGIA

San Martin, 4 • AZKOITIA • Tel.: 943 85 15 53

Pello
Arenas

Kusajoko aterpeko guardia

«Derrigortuta izan naiz aterpea ixtera»

► Noiz izan zenuen osasuneko txostenaren berri?

Federaziotik heldu zitzaidan txostena, ondoren bilera egin genuen, aterpean bertan, nik, federazioak eta Lagun Onak-ekoak. Harrezkero ez dakit ezer. Iazko umeen kanpaina martxan, aurtengo kanpaina bertan behera geldituko zela komentatu zidaten Federaziotik, obrak egin ezean, arazo serio bat dagoela-eta. Orduan, San Adrianeko aterpeko arduradun postua eskaini zidaten. Baina nik ezetz esan nuen. Familia-eta hemen ditut eta...

► Umeen egonaldia moz-

tu zen lehenengo, gero jaten eta edaten ematerik ez dagoela da berria.

Horren berri emanez, Federaziotik gutuna jaso nuen. Ondorioz, niri dilemma bat sortu zait: jaten eta edaten ematerik ez badut, nik nola funtzionatu behar dut? Nire ogibi-dea nondik atera behar dut? Ez dit interpretatzeko biderik ematen. Idatzi bat bidali nuen Federaziora, esanez ez zitzaidala ondo iruditzen horren berri emanez paper soil

«**Ez dakit oraindik nire egoera zein den**»

bat bidaltzea eta ea ni zer egoeratan gelditzen naizen. Dagoeneko 25 egun pasatu dira eta oraindik zain nago [orain hamar egun hitz zuen UZTARRIAK Pelloarekin]. Gero, bi asteburutan aterpera igo nintzen, uste bainuen jendeak azalpen bat merezi zuela. Bi asteburutan igo nintzen, bertan urte asko pasatu ditudalako eta maite dudalako. Orduan, itxita dago, nik ixten dut. Baina, neu derrigortua izan naiz ixtera. Egoera arraroa da.

► Zenbat urte dira Xoxoteko aterpean lanean ari zarela?

Orain dela hamahiru urte hartu nuen. Aurretik


Xoxoteko aterpeko arduraduna izan da Pello Arenas hamahiru urtean. Federaziotik gutuna jaso ondoren Xoxoteko aterpea itxi beharra izan du.

bi urtean Jon Aizpuru eta biok begirale bezala ibili ginen, geu izan ginen pixka bat umeenari-eta forma eman genionak. Urteotan ia 8.000 ume pasatu dira. Jendea ugaldut egin da larunbat eta igandetan; batzuek diote masifikazioa dela... Hor kontua bakoitzak mendia nola ikusten duen da.

‘Mendia ezagutu’ kanpainarekin urtero 600 gaztetxo izan dira aterpean

**Gipuzkoako Foru Aldundia-
ren** Kirol Eskolarra egitarauaren barne dago *Mendia Ezagutu* kanpaina; Gipuzkoako Mendi Federazioak bideratzen du, eta era horretan Gipuzkoako hainbat ikastetxetako gaztetxoak egonaldiak egiten dituzte mendi aterpeetan. Xoxoteko aterpean iazko ikasturtean egin ziren egonaldiak azkenekoz. Osasuneko obra eskaerak zirela-eta, Xoxoteko

egonaldiak aurtengo ikasturtean Lizarrus-tiko aterpera pasatu dira. Pedro Aranbarri azpeitiarra hamalau urtean izan da begirale Xoxoteko aterpean eta egun Lizarrustin dihardu egonaldien begirale. «Urriaren erdialdera hasi eta abendua arte eta gero otsailetik ekaina arte izaten dira, bi-hiru eguneko egonaldiak. Xoxoten batez beste urtero



600 bat gaztetxo pasatzen ziren. Gehienak gipuzkoarrak».

Xoxotek, hainbat ekintza burutzeko aukera duela azaldu digu Pedrok, «eskala, mendi buelta, orientazioa, kanping-denda muntaketak eta tirolina egin ohi genituen».

Osasun txostenak herriko taberna eta jatetxetan eragin du

Aldiro taberna eta jatetxeek Osasun Sailekoen bisita izaten dute

► Urtean behin edota bitan taberna eta jatetxeek Osasun Sailaren ordezkarien bisita izaten dute ► Herriko taberna edota jatetxe gehienetan aldaketa txikiak egin beharra izan dute ► Pintxoak eta ogitartekoak eman edota bazkari eta afariak eman osasun neurriak aldatu egiten dira.

Idoia Mendizabal

Urtean behin eta batzuetan bitan, herriko taberna eta jatetxeek Osasun Saileko teknikarien bisita izaten dute. Batzuetan araudiak eskatutako baldintza guztiak betetzen dituzte. Baina beste kasu batzuetan epe bat jarri eta araudia betetzeko aldaketak egin beharra izaten dute. Manuel Alvarez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Urola eskualdeko arduradunaren esanetan, «Azpeitiko taberna eta

jatetxeak beste lekuetan bezalaxe bisitak jasotzen dituzte, taberna eta jatetxe guztietan bezala. Eta baldintzak ez badituzte betetzen, epe bat jartzen zaie beharrezko aldaketak egiteko. Aldaketak txikiak edota handiak izan epea ere desberdina izaten da».

Txikikeriak

Herriko zenbait taberna eta jatetxeko jabeek kontsulta egin eta ia taberna guztiek izan dute azken bi urteotan Osasun Sailekoen bisitaren bat edo bi. Baina gehienetan aurkitu izan dituzten hutsuak txikiak izan dira. Zuhatz tabernako jabearen esanetan, «iturria pedalarekin eta langileentzako takila jartzeko eskatu zigiten lehen aldiz etorri zirenean. Orain dela gutxi, bigarrenengo etorri direnean, berriz, sukaldean lanean ari denak jatekoak prestatzeko karnet berezi bat izan behar duela adierazi ziguten». Amaia tabernan ere iturria peda-

larekin jarri beharra izan dute, Osasun Sailak eskatuta bezala.

Ordea, taberna edota jatetxe izan osasun neurri batzuk aldatu egiten dira, esaterako Ustarri Erretegiko jabearen esanetan, pintxoak eta ogitartekoak emateko bi komun edukita nahikoa da. Baina bazkariak edota afariak ematen badira, bertako langileentzat izango den hirugarren komun bat eskatzen dute. Ustarri Erretegiari orain dela bi urte, hirugarren komun bat ipintzeko bi urteko epea eman zion. Gehitu dute komun berria eta bestelakotan, «iturria elektronikoa edota pedalarekin jarri» beharra izan dute.

Osasun Saileko arduradunaren esanetan, «aspaldiko taberna batzutan zera gertatu da, hasiera batean otartekoak edota pintxoak ematen bazituzten, gero menuak edota bazkari eta afariak ematera pasa direla. Kasu hauetan jatetxeek dagozkien baldintzak bete behar izaten dituzte». ■



Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 81 50 72

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

ESTUDIO D3 ENRIQUE EGUINO
ARANA GOIKOA, 1 BEHEA - 20730 AZPEITIA - TEL.: 943 81 08 88

Barne Diseinua

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURUOK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Empanan kalea, 30
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Kontua da...

Azpeitiar agintarien estualdiak 1812. urtean



Imanol Elias

Historialaria

Udal akta liburuari begiradak adierazten du zerbait gogorra gertatzen zela 1812an, maiatzetik uztaila artean 15 udalbatza nagusi egin ziren.

Probintziak aginduta, frantziar soldaduen beharrak erantzun behar zituen herriak. Lehen hilabeteen, herriak aurreratutako 3.000 errazio ogia eta ardoa, baina gehiago prestatu beharrean



oSaSuNa

Gastronomia eta bihotza



Julian Bereziartua

Medikua

Banketerik ospetsuenak ezteietakoak dira. Gastronomi aldetik jendea inguratzeke zerbait berezia badute. Ez da harritzekoa bestalde, jatordu bikainen ondoren, bapatean pertsonak gaixotzea, batez ere *lipotimia* azalduz. Garbi dago zorabio hauek asko, bihotzaren hutsegite-tik datozela.

Sarriago izaten dituzte gizonezkoek emakumezkoak baino. Are gehiago 40 urte baino gehiago dituztenak, tentsio altua dutenak, diabetikoak edo zigarro erretzaileak. Batzutan agerian ez da ezer azaltzen, beste batzutan berriz: Toraxeko mina; Disnea, amas-keta bizkortzen da; Zianotia, ezpainak urdintzen di-

ra; Bihotz taupada handiak; Sinkopea, korderik gabe gelditzen da; Takikardia sinusala, emozioagatik, bihotzaren taupadak azkaragoak dira; Estrasistole-

ak, lekuz kanpoko taupadak.

Nahiz eta kardiologoak ez izan, urte asko daramazkit sendagile eta praktikan antzeko kasuak sarri bizi izan ditut. Konplexuak sortu eta ka-

suren batean heriotzeraino eramanezake pertsona.

Sintomaren bat inoiz somatzen badugu, ez dezagun denborarik galdu haizea ematen, abanikatzen edo jatetxeko ohean etzaten. Horrelakoetan, ospitale batera eramatea da egokiena.

ZORABIOAK

Garbi dago zorabio hauek asko bihotzaren hutsegite-tik datozela.

SuKaldaritzA

Foie freskoa saltsan



Artoa xehetu eta esne-gaina eta arautz irabiatuekin nahastu. Gero lau molde desberdinetan

labean sartu 180 gradutan 25 minutuz. Oportoa kipularekin erreduzitzen ipiniko dugu eta gero aragi salda

oSaSuNa

Udazkenean ilea ere erori

Udazkena heldu da, hostoak erortzen hasiak dira. Ez da hostoa bakarrik udazkenaren etorrera igartzeko duena, ileak ere aldaketa jasaten baitu sasoi honetan. Ohi baino gehiago erori eta maskaldua ageri da.

Bestela ere ilea erori ohi zaionari, udazkenari aurrea hartu eta ilea prestatzea ko-



aurkitu zen; hilaren 16an, beste 4.000 soldadu herriratu zen Mina mariskalaren esanetara, San Agustin eta Santo Domingo komentuak utzi eta Loiolako Ikastetxe Errealetik lotarako lastoa ekarriz. Haragia ere herriak inguratu behar zuen, agintariei baserriarrak ezer gabe utzirik, ezinezkoa egin zitzairen ordaintzea.

Derrigorrezkoa egin zitzaion herriari, jeneroen ordainketa eskuratzea, baina probintziaren ezezkoa jaso-

tzean, larrialdian aurkitu zen. Gipuzkoako Borondatezko taldearentzat ere, 1.400 errazio prestatzeko agindu zen ekainak 7rako, ezinezkoa zela erantzutean, agintariak atxilotu ziren udaltxeko areto nagusian. Azkenik, zorrak ordaindu eta eskaerak erantzun ezinik, baioneta artean, Deskar ga aldera eraman zituzten agintariak gaueko hamaiketant. Gau euritsua zen, bat

SOLDADUAK

Probintziak aginduta, frantziar soldaduen beharrak erantzun behar zituen herriak.

baino gehiago izan zen, etxetik irtetzeko gai ez zela, ibili ezinean, zauriak eta kolpeak zituztela...

Abuztuan, 1.800 errazio aurreratu ziren, ogia eta haragia, Oñatzeko baserriarrak 32 erralde eman

zituzten, Odiakoak 18, Loiolakoak 17, Eizagirrekoak 28, Izarraitzpekoak eta Elosiaga-koak 32.

Herriko jai nagusiekin gogoratzea, nahiko zaila...

Isaac Garcia-Bravo / Jai Alai Jatetxea

Ahatearen gibela ■ Arto gozoa ■ Esne-gaina ■ Arraultzak ■ Gatza ■ Sagarrak ■ Oporto ■ Haragi salda ■ Kipula .

gehituko diogu, laurden batera erreduzituz.

Ondoren gibela bi alderdietatik xigotuko dugu. Aurkezpenerako Artoaren tortilla platerraren barre-

nean ipiniko dugu, ondoren salda gaintetik botako diogu eta azkenik foie freskoa gainean ipiniko dugu.

On egin dagizuela!

meni zaio, erasan handiagoa egiten baitio urtaro honek.

Tratamendu aproposak badira: ile erraboila edo ile sustrairako tratamenduak.

Ile erraboilan eragiten dutenak, bitaminak eta *Ibodrim* dira. Batak ilea ez erortzeko odol-zirkulazioa hobetzen du, eta besteak zelulak hidratatu eta berritzen ditu.

Ile sustrairako egokiak direnak «2+1» eta *Penetrat* dira. Batak ile kaltetuaren sustraia hidratatzen du eta besteak aldiz ile kaltetuari beharrezkoak dituen proteinak ematen dizkio.

Jabier Jauregi

Kimetz. Heapaindegia

EuSKaRa

Urrestillan, azaroaren 3an

Aitor Aruti

Arantzazu Azpillaga

Euskal Filologian lizentziatuak

Ia jaiotzatik beretik data nola idatzi ikusi, ikasi (?) eta entzun dugun arren, ez zaigu buru egoskorrotan sartzen. Horren adierazgarri dira hainbat testu.

Nola idatzi behar ote dugu data? *Azaroak 3an* ala *azaroaren 3an*. Hona Euskaltzaindiaren gomendioak:

DATA

Nola idatzi behar ote dugu data? Azaroak 3an ala azaroaren 3an.

1. Urrestillan, 2000ko azaroaren 3an edo Urrestilla, 2000ko azaroaren 3a.

2. Hilabetea eta eguna bakarrik adierazi nahi denean, bi aukera ditugu: azaroaren 3a edo azaroak 3. Okerrak dira, ondokoak: *azaroak 3 eta 7an*, *azaroak 3tik 7 arte*, *datorren*

azaroak 3. **Zuzenak**, ordea, honakoak: *azaroaren 3an* eta *7an*, *azaroaren 3tik 7 arte*, *datorren azaroaren 3an*.

3. **Azaroak 3** bezalakoak ondo leudeke esaldi baten barruan ere, honelakoe-tan: *datorren ostiralean*, *azaroak 3*, *izango da bilera*. Baina, horrelakoetan **bakarrik**, aposizioan, alegia.

Azalpen hauekin ez dugu miraririk espero, baina zalantza dugun erako badakigu Uztarrira-ren azaroko atalean badela horri buruzko zerbait. Azalpen zabalgorako, Euskaltzaindiaren arauetara jo.

Fundiziyue

Musika taldea

“Diska grabatzen urtea eman dugu”

► Noiz sortu zenuten taldea?

94an Fundiziyue Atxubiya, Irimo, Morgan, Maolo Jotakiek eta Ion Alberdik osatu genuen, gero jendeak alde egin zuen, Atxubiya eta Morganek Zilbor Hesteak osatu zuten. Utzi aurretik maketa bat atera eta azken kontzertua Egin Txotx-en jo genuen.

► Orduan egun taldea osatzen duzuenok hasi zineten.

Bai, 96an egungo taldea osatu genuen Irimok (kitarra) eta Ion Alberdik (ahotsa), Ondarru (bateria), Joxemai Larrañaga (baxua) eta Ion Iraetarekin (kitarra).

► Talde berriro sortu eta Euskadi Gazteako maketa lehiaketa irabazi zenuten.

Taldeak udan, Urrestillako beste lau talderekin bat diska atera zuen. Diskan sartu genituen kantuekin irabazi genuen maketa lehiaketa, epaimahiaren saria jaso genuen.

► Eta grabatu zenuten lehen diska hark harrera ona izan al zuen?

Fundiziyue musika taldeak lan isilean jardun du azken lau urteotan **Urrestillako lokalean**. Urtebetea diska grabatzen aritu da lokalean. **Gaztelupeko Hotsak disketxearekin** Durangoko azokarako kaleratuko du.

Nerea Uranga

Aurkezpena Eperra tabernan egin zen. Gero dezente saldu zen. Auto-produzitutako diska izan zen, Urrestillako taldeak egindako diska.

► Garai hartan makina bat kontzertu eman zenuzuten.

Nahikoa. Saria irabazi eta lau hilabetetan ia

hamabostean behin jo genuen. Astean bi aldiz ere jo izan genuen.

► Eta urte hauetan zertan aritu da Fundiziyue?

Lau urteotan geure martxan jarraitu izan dugu. Kontzertuetan eta IZ disketxearekin kontaktuak izan genituen, baina geuk egin behar genuen apustua. Orain harrapatu bagintuen sariak, desberdina litzateke. Ondo etorri zaigu geure kasa lokalean jardutea.

► Nola definituko zenukete Fundiziyueren musika?

Pop-rock da.

► Durangoko azokarako diska berria aterako duzue.

Bai. Mugitzeko gogoia egin zaigu. 24 kanta eginga genituen eta 12 aukuratu ditugu diskarako. Grabatzen urtebete eman dugu. Lokalean bertan grabatu dugu, 16 pistako mahaia daukagu eta ordenadora ere badugu; horrek aukera ematen du diska bertan grabatzeko. Tekniko lanetan Atxubiya

eta losu Galtxa jardun dira. Guk grabatutakoa, disketxe batekin aterako dugu, Gaztelupeko Hotsak disketxearekin.

► Aurretik diska batean parte hartu izanak eraginik izan al du bigarren diska ateratzeko orduan?

Ez. Lau urteotan jendea ahaztu egin da. Fundiziyue izenak ere ez du balio izan, geu mugitu gara.

► Kantuak zeuek egiten al dituzue? Eta hitzak?

Kantuak guk egiten ditugu. Oraingoan bertsio bat ere jaso dugu, Itoitz taldearen *Espaloian* kanta. Hitzak erdiak beste batzuek dira —Xabier Aldayrenak eta *Bingutxo*-renak—, besteak guk idatzi ditugu. Zaila da hitzak idaztea, eta ekartzen dizkigutenak eskertzen ditugu.

► Aurreneko diskarekin alderatuz, zer du berria bigarrenak musika alde-tik?

Dena da berria eta denak dauka zerikusia lehengoarekin. Aldaketa badago, baina lehengo zentzua ere jasotzen da.

“LOKALEAN MUGIMENDU HANDIA DAGO. JENDEAK izugarrizko ILUSIOA dauka”

Bateratuago gaude. Azken finean, beti dago bila-kaera eta berritzen joan gara, orain oinarri bat dago, egungo soinua askoz konpaktuagoa da.

► Egun, herriko musika talde beteranoetakoa da Fundiziyue, ezta?

Bai? Ba, agian bai.

► Zer egoeratan daude egun musika taldeak Azpeitian?

Mugimendu asko dago. Jendeak daukan ilusioa aldatu egin da, batzuk grabatzen ari dira. Jesusen mugimendua dago. Taldeez gain azpiegitura bat sortu da. Orain talde berri bat etortzen denean hona, Urrestillako lokale-ra, aukera handia dauka grabatzeko eta gauzak egiteko. Grabatzeko, adibidez, mahaia daukagu, eta horrek izugarrizko ilusioa egiten du. Gainera, jende desberdina biltzen gara, musika desberdina egiten da. Baina hemen taldeek kanpora ateratzeko beldurra daukate, *hobby* bezala hartzen da eta ez da ausardiarik kanpora ateratzeko. Beste leku batzuetan jendea gehiago arriskatu da. ■



agirre

oparidenda
argi tresnak - markogintza

Eros etxerako guztia orain eta ordain urtebetean... inolako errekaririk gabe.

Erdikale, 1 Azpeitia

70.000 lagun bildu ziren, europear, Kilometroetan

Balorazio positiboa egin zuten antolatzaileak

► Kilometroetan karpek alde ederra egin zioten ibilbideari
► Gazteen partehartze kopuruarekin gustura daude antolatzaileak ► Espero baino %25 diru gutxiago atera zuten egunean bertan

Ion Aranburu

Eguraldia txarra izan bazen ere ikastolen festa egunean, jende asko etorri zen Kilometroak gozatzerara. Antolatzaileen hitzetan, 70.000 lagun inguru hurbildu ziren, eta egin zuen eguraldia kontuan hartuta ez da zenbaki makala.

Goizeko 9:30etan ireki zen ibilbidea Ikasberri ikastolako gaztetxoek zinta moztu ostean. Euriaren ondorioz, kilometro horietan denetan lau metrotan bakarrik izan ziren arazoak. Sevillatik ekarritako karpek alde ederra egin zioten egunari, euriarengandik babesteko ater-



Euritako eta guzi egin zuten balorazioa antolatzaileek.

NEREA URANGA

pe bakarrik izan baitziren ibilbidean zehar.

Egunerako antolatuta lau bazkari mota zeuden eta horietatik batean bakarrik sobratu zen janaria.

Urtean zehar 15 ekitaldi desberdin antolatu dituzte, eta bertara joan den jende kopuruarekin eta antolaketaekin gustura agertu dira Kilometroak 2000ko antolatzaileak.

Gazteek emandako erantzunarekin ere arto agertu dira.

Ibilbidea beste urteetan baino gazte gehiagok egin zuten eta gazte askoren dirulaguntza ere jaso dute.

Lortu duten diru kopurua esanguratsua izan bada ere, antolatzaileen aurreikuspenak baino %25 gutxiago izan da.

Honi irtenbidea emateko *Ipiniozu aterkia Kilometroei* lelopean kontu korranteak ireki ditu Ikasberri Kutxa, Eus-kadiko Kutxa eta La Caixa banke-
txeetan. ■

CONSEJO MAGKAR

**estetikako
azken
teknikak**

Enparan, 15-1
Tel. 813898

bide

**Sukaldeko altzariak
eta
horman sartutako
armairuak
neurritara.**

Landeta Auzoa - AZPEITIA
Tel. eta Faxe: 943 81 17 47

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxe.: 943 15 03 62

Bertso eskolak abian dira

Erniarraitz Bertso Elkarteak antolatu ditu

► Bertsozale eta bertsolariek
bailarako Erniarraitz
Bertsozale Elkartea sortu
dute ► Bertsoaren inguruko
ekitaldiak koordinatu asmoz
eratu da ► Bertso-eskolak
martxan jarri dira

Nerea Uranga

Erniarraitz Bertsozale El-
karte sortu berrian baila-
rako bertsozale eta ber-
tsolariak elkartu dira. Azpeitiko
Udalak Hartzubia Hiribidean
lokalak utzi dizkio, lehen Udal
Euskaltegiko ikasgelak zeuden
lekuan. Jokin Uranga elkarte-
ko kidearen esanetan, Herriarte-
ko Bertsolari Txapelketaren ingu-
ruan bildu ziren bertsozaleek
sortu dute Erniarraitz: «Iaz ingu-
ruko bertsolari eta bertsozaleak
biltzen hasi ginen Herriarte-
ko Bertsolaritza Txapelketa antola-
tzeko. Azpeitian talde polita lor-



Erniarraitz-en lokalak.

JAIONE UNANUE

tu genuen, eta jarraipen bat
emanda, bertatik atera da Er-
niarraitz Bertsozale Elkartea».

Ekitaldien koordinazioa

Bertsozale elkartea, bailaran
bertsoaren inguruan egiten
diren ekitaldiei jarraipena egin
eta koordinatzeko asmoarekin
sortu da.

Uneotan bertso eskolak anto-

latzen eta martxan jartzen ari
da, Azpeitia, Azkoitia eta Erre-
zilen. Jokin Urangak dioenez,
«orain bertso-eskolekin ari ga-
ra lanean; Azkoitian eta Erre-
zilen hasi berri dira, eta
Azpeitian aurki hasiko gara.
Hemen bertso-eskolak ematen
Leire Ostolaza ariko da. Es-
kolarteko bertso-eskolak berriz,
ikastetxe bidez bideratuko ditu
elkartek. Badakigu Azpeitia
mailan jende ugari animatuko
dela bertso-eskolan parte har-
tzera». Eskolak, ezagutzaren
arabera, maila desberdinetan
saiklatuko dira, eta ikastetxee-
tan adinaren araberrako mailak
izango dira.

Aurtengoa ez da aurreneko
urtea herrian bertso-eskolak
martxan daudena. Ordea, ber-
tsozale elkarteak aurreko urtee-
tan baino egokiroago antolatu
nahi izan ditu eskolak. Er-nia-
rraitzeko bertsozaleen esane-
tan, «aurreko urteetan funda-
mentu handirik gabe aritu gi-
nen. Bailaran bertsolaritzak
duen pisua eta zenbat bertsola-
ri dagoen ikusita, eta zaletasu-
na ere hor dago, uste dugu
bazela garaia zerbait txukuna-
goa aukezteko».

Azpeitiko bertso-eskola be-
rrian izena eman nahi duenak
943 813056 telefono zenbakira
dei dezake. ■

LORADENDA
IRENE
ALTUNA

Lore Sortak
Koroiak
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
Zerbitzua Dugu



Tel.: 943 81 51 87
Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA



AIZPURU

AUTOAK

PEUGEOT

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

Eskulanak

Est-Bel

Foruen Ibilbidea, 3
Tel.: 943-816107

- Zurezko altzarien polikromatua.
- Metala, tela, eskaola eta polimuretanoan margotzea.
- ... eta beste hainbat eskulan.

Matrikula zabalik urte osoan

zer dago gaizki, zer faltan, zer soberan?

Adi-adi egin so eskuineko argazkiari, eta bertan zer dagoen gaizki, zer faltan edota zer soberan asmatu behar duzu. Zeure ustez asmatzen baldin baduzu, adierazi akatsa boligrafoz, moztu orrialde hau eta azaroaren 10erako bidali gutuntxo batean helbide honetara: Uztarria Kultur Koordinadora, posta kutxa 227, Azpeitia.

Izen-abizenak:


Helbidea:

Telefonoa:

Argazkiko akatsa:

Irabazleak **Jai Alai Jatetxean** bi lagunentzako afaria izango du, eta UZTARRIAREN elastiko bat ere jasoko du.

aurreko argazkia



...eta soluzioa



irabazlea: **Maite Alberdi**



Afaria eta elastikoa ◆

Maite Alberdi izan da hamaikagarren irabazlea. Sari gisa, bi lagunentzako afaria izan zuen Larrañaga jatetxean (bertakoa ere ageri da argazkian), eta UZTARRIAREN elastiko bat ere jaso zuen.



Manuel Salaberria
BEGIKO SENDAGILEA

BEGIKO MIKROKIRURGIA:

- KATARATA. MIOPIA. HIPERMETROPIA.
- BEIRAKARA-ERRETINAKO GAISOTASUNAK
- Erretina askatze.
- Makulako gaisotasunak.
- Erretinopatia diabetiko konplikatuak.



Esther Usandizaga
FAMILIAKO MEDIKUNTZA
ETA MEDIKU OSTEOPATA

- Azterketak (Analisiak...).
- Arreta jarraia.
- Etxera ere joaten gara.

OSTEOPATIA

- Bizkarrezurraren errehabilitazioa (gerrrialdekoa, bizkarraldekoa, zerbikala).
- Gihar eta artikulazioetako arazoak.

Loiola auzoa, 25-B 1.º K
Tfnoa: 943 15 17 52
20730 Azpeitia-Loiola

izan beharreko telefonoak

Erakunde edo toki publikoak

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Nekazal Ganbara	81 46 56
Zerga Bulegoa	81 13 68
Enplegu Batzordea	15 03 00
INEM	15 04 02
Eusko Jaurilaritza	15 16 57
Urkome	81 65 00
Lapatx Zabortegia	81 55 05
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48

Osasuna

Anbulategia	81 51 00
(larrialdiak)	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA	81 38 49
(Donostia)	46 46 22

Komunikabideak

Uztarria (berria)	15 03 58
DV	15 09 94
Herri Irratia	81 44 58
Kaito TB	81 53 35

Alderdi politikoak

EAJ - PNV	81 55 70
HB - EH	15 12 15
EA	81 00 11

Sindikatuak

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

Ikastetxeak

Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesuitinak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Milagrosa	81 63 80
Urola Ikastola	15 02 28

Garraioak

Aldalur	85 27 18
EuskoTren	15 06 77
La Guipuzcoana	85 11 59
Pesa	21 26 99
Piper U. Elkarte	85 25 87
Taxiak	81 13 07

Kultura - Euskara

Euskara Patronatoa	81 19 47
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarria (berria)	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40

farmaziak gauez

Urriaren 30etik azaroaren 5era

Ruiz (Azkoitia) . Kale Nagusia, 13. 85 19 66.

Azaroaren 6tik 12ra

Garcia. Enparan, 29. 81 12 74.

Azaroaren 13tik 19ra

Jaen (Azkoitia). Ibaiondo, 28. 85 06 60.

Azaroaren 20tik 26ra

Aseginolaza. Plaza Goikoa, 2. 81 13 50.

Azaroaren 27tik abenduaren 3ra

Azpiazu (Azkoitia). Kale Nagusia, 66. 85 29 89.

gune publikoen ordutegia

Udaletxea

Astegunak: 9:00 - 13:30.
Larunbatak: 9:00 - 13:00.

Ixpixioa

Egun osoz irekita.

Igerilekua

Astelehenak: 14:00 - 21:00.
Beste astegunak: 7:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

Kiroldegia

Astelehenak: 9:00 - 13:00, 15:00 - 21:00.
Beste astegunak: 15:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

Udal Liburutegia

Astegunak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

autobusak

JOATEKO

Azpeitia-Zestoa-Donostia

Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2).
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15.
Igandeak eta jaiegunak: 15:10, 19:15.
Enpresa: La Guipuzcoana.
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik.

Azpeitia-Eibar-Bilbo

Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30.
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30.
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 19:30.
Enpresa: Pesa.

Azpeitia-Bilbo-Leioa

Astegunak: 6:35, 7:20, 13:30.
Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.

Azpeitia-Azkoitia

Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Zestoa-Zumaia

Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10.
Asteburua eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05.
Enpresa: EuskoTren.
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.

Azpeitia-Zestoa-Zarautz

Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10.
Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Zumarraga (hospitela)

Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40.
Enpresa: EuskoTren.

Azpeitia-Errezil-Tolosa

Astegunak: 6:55, 13:55.
Asteburuak eta jaiegunak: -
Enpresa: EuskoTren.

ITZULTZEKO

Donostia-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30.
Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00.
Igandeak eta jaiegunak: 18:00, 20:00.
Enpresa: La Guipuzcoana.
Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik.

Bilbo-Eibar-Azpeitia

Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00.
Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30.
Igandeak eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00.
Enpresa: Pesa.

Leioa-Bilbo-Azpeitia

Astegunak: 13:00, 14:00, 18:00, 19:00, 20:00.
Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.

Azkoitia-Azpeitia

Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00.
Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55.
Enpresa: EuskoTren.

Zumaia-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00.
Asteburua eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15.
Enpresa: EuskoTren.
Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.

Zarautz-Zestoa-Azpeitia

Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00.
Enpresa: EuskoTren.

Zumarraga (hospitela)-Azpeitia

Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30.
Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45.
Enpresa: EuskoTren.

Tolosa-Errezil-Azpeitia

Astegunak: 9:30, 18:30.
Asteburuak eta jaiegunak: -
Enpresa: EuskoTren.

aZaroa

1 (asteazkena)

- **SASKIBALOIA.**
I. Autonomikoa: Jostaldi Kirolak-Santo Tomas Lizeoa. Kiroldegian.
- **BERTSOLARITZA.**
Erniarraitz bertsozale elkarteak bertso-eskolak antolatu ditu. Izena emateko, deitu 81 30 56 telefono zenbakira.

3 (ostirala)

- **BERTSOLARITZA.**
Bertso-afaria Harkaitza elkarte-an. Bertsoan Andoni Larrañaga, Imanol Epelde eta Nahikari Gabilondo bertsolari gazteak ariuko dira.
- **IRRATI LEHIAKETA.**
Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Gabriel Arestiri buruzko irrati lehiaketa. Enparan Dorretxean. 16:00etan.

4 (larunbata)

- **INGURUGIROA.**
4R Fundazioak eta Udal Ingurugiro batzordeak antolatuta ingurugiro bolondres jarduerak. Ingurugiro etxean. Irteera 9:30etan.
- **ANTZERKIA.**
Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Sarobe Arte Eszeniko gunearen estre-noa, «Emakumezkoen zapatak» antzezlan. Zelaitxo Antzokia. 21:30etan.

5 (igandea)

- **GOIZ ERESIA.**
Izarraitz txistulari taldearen goiz eresia. 9:00etan.
- **ARGAZKILARITZA.**
Lagun Onak Mendi Bazkunak eta Argazkilari taldeak antolatuta Mendiko Argazki Rallya. Irteera 10:00etan.
- **SASKIBALOIA.**
I. Autonomikoa: Jostaldi Kirolak-Bermeo. Kiroldegian.

- **FUTBOLA.**
III. Maila: Lagun Onak-San Pedro. 17:00etan. Garmendipen.

6 (astelehena)

- **JUBILATUAK.**
Aitonenak antolatuta jubilatuen-tzat zortzi egunetako oporraldia Tarragonara.
- **ERAKUSKETA.**
Antxieta Etxeko erakusketa aretoan Jose Ramon Larrañagaren argazkiak izango dira erakusgai, azaroak 24 arte.
- **IPUIN KONTAKETA.**
Ixabel Agirresarobe eta Angel Alkain. Pantxikaren atlasa ipuin kontaketa. 8-9 urteko haurren-tzat. Udal Liburutegian. 18:00etan.

7 (asteartea)

- **GIZARTEKINTZA.**
Menopausia eta autoestimua gai bezala hartuta hitzaldia. Luis Elberdin hizlari. Aitonenako aretoan. 18:00etan.

10 (ostirala)

- **IRRATI-LEHIAKETA.**
Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Gabriel Arestiri buruzko irrati lehiaketa. Enparan Dorretxea. 16:00etan.

11 (larunbata)

- **INGURUGIROA.**
Ingurugiro bolondres jarduerak. Ingurugiro Etxean. 9:30etan.
- **ABESBATZA.**
Udazkenean Abesbatzak egitarauaren barne, Loiola-Azpeitiako Nemesio Otaño abesbatza. Frantziskanetako elizan. 19:00etan.
- **ANTZERKIA.**
Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Tentazioa eta Tricicleren «Ez da hain erraza» antzezlan. Zelaitxo Antzokia. 21:30etan.

12 (igandea)

- **GOIZ ERESIA.**
Izarraitz txistulari taldearen goiz eresia. 9:00etan.

- **MENDIA.**
Lagun Onak M.B.k antolatuta haurrentzat Murumendira goiz ibilaldia. Irteera plazatik. 9:00etan.

13 (astelehena)

- **GIZARTEKINTZA.**
Sexualitatea gaur egun izenburupean hitzaldia, Luis Elberdin hizlari lanetan. Aitonenako aretoan. 19:00etan.

14 (asteartea)

- **GIZARTEKINTZA.**
Menopausia eta autoestimua gai bezala hartuta hitzaldia, hizlari Luis Elberdin ariuko da. Aitonenako aretoan. 18:00etan.

15 (asteazkena)

- **GIZARTEKINTZA.**
Sexualitatea, gaur egun gaia-ren inguruan hitzaldia. Luis Elberdin hizlari dela. Aitonenako aretoan. 19:00etan.

16 (ostegana)

- **GIZARTEKINTZA.**
Sexualitatea, gaur egun hitzaldia. Aitonenako aretoan. 19:00etan.

17 (ostirala)

- **IRRATI-LEHIAKETA.**
XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Gabriel Arestiri buruzko irrati lehiaketa. Enparan Dorretxea. 16:00etan.

18 (larunbata)

- **INGURUGIROA.**
Ingurugiro bolondres jarduerak. 4R fundazioak eta Udaleko Ingurugiro Batzordeak antolatuta. Ingurugiro Etxean. 9:30etan.
- **ABESBATZA.**
Udazkenean Abesbatzak. Hendaiako Gaztelu Zahar abesbatzaren saioa. Frantziskanetako elizan. 19:00etan.
- **ANTZERKIA.**
Euskal Antzerki Topaketak. Bederen 1. «Lauren eta Hardy Zerura bidean». Zelaitxo Antzokian. 21:30etan.

19 (igandea)

- **MENDIA.**
Lagun Onak M.B.k antolatuta helduentzat egun guztirako ibilaldia Garate Gaina- Donostia. Irteera Enparantza Nagusitik. 8:00etan.
- **GOIZ ERESIA.**
Izarraitz txistulari taldearen goiz eresia. 9:00etan.
- **MUSIKA.**
Udal Musika Banda. Kontzertu omenaldia Jose Luis Larrañaga eta Luis Barrenari. Enparantza Nagusian. 13:00etan.
- **FUTBOLA.**
III. Maila: Lagun Onak- Real Sociedad. 17:00etan. Garmendipen.

20 (astelehena)

- **IPUIN KONTAKETA.**
Itziar Zubizarreta, ipuin kontaketan. 5-6-7 urteko haurrentzat. Udal Liburutegian. 18:00etan.
- **GIZARTEKINTZA.**
Sexualitatea, gaur egun gai bezala hartuta hitzaldia. Luis Elberdin izango da hizlari. Aitoneno aretoan. 19:00etan.

21 (astearte)

- **GIZARTEKINTZA.**
Luis Elberdinen hitzaldia Menopausia eta Autoestimua gaiaren inguruan, Gizartekintza Sailak antolatuta. Aitoneno aretoan. 18:00etan.

22 (asteazkena)

- **MUSIKA.**
Santa Zezilia jaiaren inguruan, Juan de Antxieta Musika Eskolaren. Kalejira Azpeitiko kaleetan zehar. 18:00etan.
- **GIZARTEKINTZA.**
Sexualitatea, gaur egun gaiaren inguruko hitzaldia. Hizlari Luis Elberdin. Aitoneno aretoan. 19:00etan.

23 (osteguna)

- **MUSIKA.**
Piano kontzertua, Xabier Lizaso Loidi pianojole dela. Frantziskanetako elizan. 19:00etan.

24 (ostirala)

- **IRRATI-LEHIAKETA.**
Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Gabriel Arestiri buruzko eskolarteko irratia lehiaketa. Enparan Dorretxean. 16:00etan.
- **MUSIKA.**
Juan de Antxieta Musika Eskolaren Santa Zezilia jaialdia. Zelaitxo Antzokia. 19:30etan.

25 (larunbata)

- **INGURUGIROA.**
Ingurugiro etxean 9:30tan irten da Ingurugiro bolondres jarduerak.
- **OMENALDIA.**
Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Gabriel Aresti Seguro la idazleari buruzko omenaldia. Akto akademiko eta liburuaren aurkezpena. Arestiren hainbat texturen irakurketa antzeztua, Maskaradako Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreak. Udal Areto Nagusian. 12:30etan.
- **ABESBATZA.**
Udazkenean Abesbatzak. Julian Barrenetxea abesbatza. Frantziskanetako elizan. 19:00etan.
- **ANTZERKIA.**
XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Maskarada. «Kaio luma zikina», Aresti hitzez hitz antzezlana. Zelaitxo Antzokia. 21:30etan.

26 (igandea)

- **GOIZ ERESIA.**
Izarraitz txistulari taldearen goiz eresia. 9:00etan.
- **SASKIBALOIA.**
I. Autonomikoa: Jostaldi Kirolak-Alfus Gernika. Kiroldegian.
- **FUTBOLA.**
Jubenilak: Lagun Onak-Anaitasuna. Neskak: Lagun Onak-Mutriku.

27 (astelehena)

- **ANTZERKIA.**
Eskola Antzerki Topaketak. Dar Dar produkzioaren «Alizia bitxikerien lurraldean» antzezlana taularatuko da. Zelaitxo

Antzokia. 11:00etan eta 15:30tan.

28 (astearte)

- **ANTZERKIA.**
Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Eskola Antzerki Topaketak. Zelaitxo Antzokia. 11:00etan eta 15:30tan.
- **GIZARTEKINTZA.**
Menopausia eta Autoestimua inguruko hitzaldia. Hizlari Luis Elberdin arituko da. Aitoneno aretoan. 18:00etan.

29 (asteazkena)

- **ANTZERKIA.**
Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki Topaketak. Eskola Antzerki Topaketak. Zelaitxo Antzokia. 11:00etan eta 15:30tan.

30 (osteguna)

- **ANTZERKIA.**
Euskadiko XVIII. Euskal Antzerki topaketak. Eskola Antzerki Topaketak. Zelaitxo Antzokia. 11:00etan eta 15:30tan.

UZTARRIAREN OHARRA taldeei: bidali zeuen ekitaldion berri honako helbide batera: 227 posta kutxa (Azpeitia), edo Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre.

aZarOa

Itziar Goenaga

Aixkolaye.
Elosiya auzo-
ko Arbe base-
rrikue da 22
urteko neska
gazte hau.
Gazte-gazte-
tatik herri
kiroletan
hasi zana,
tio Joxemai
maixu zula.
Laixte alde
batea utzikou
aixkorie.



ITZIAR GOENAGA

"SANFERMINETAKO TXAPELA BI ALDIZ IRABAZI DIÑET TA IÑOR'E EZ DEN ENTERAU"

► Ezagune haiz herri kiroletan ibiltzen haizenalako. Kirol bat baño geyotan ibili haiz, ordie.

Geyena aixkora ibili naun. Geo plazan harrijasotzen, trontzan, giza-proban...

► Nolatan hasi hintzenan?

Erakutsi, tiok erakutsi zinan. 13-14 urtekin, trontzan hasi niñunan. Geo, Aizarnazabalen exhibiziyo bat eitie nahi ziñebenan, lau neska aixkora. Hainbat komerin ondoren, neu preparamau niñunan. Txanda librien Saralegi aizpek, Leitzako Ana eta neu jardun giñenan.

► Geldialdiyen ondoren, 18 urtekin hasi hitzenan berriz...

Ba, Saralegi ahizpe batek utzi ein ziñenan eta exhibiziyotako beste bat ber ziñenan Kristinak. Eta probatze-kotan bezela, animau ein niñunan.

► Baño aixkorie hartu aurretik trontzan jardun hunan.

"Aixkora ein ber den ikixi. Ezten inderra, fisikue eo fondue bakarrik. Ofiziyo bat ikixtie bezela den"

Bai, Errezilgo mutil batekin pareja ibiltzen niñunan. 14 urtekin Errezilen 20 urte zauzkeben mutil batzuei trontzan apustue irabazi genitxonan.

► Heu ibiltze al haiz egurre preparatzen?

Beti laguntzie izan diñet, mutillek, attek eo tiok laguntzen. Norbeak ein ber din. Geyo kostatzen preparatzie, geo ebaitzie baño.

► Ta preparaziyo fisikue?

Aixkora ein ber denena, den ikixi. Ez den inderra, fisikue eo fondue bakarrik. Esaten diñebe ofiziyo bat ikixtie bezela dala.

► Zein den egur ona?

Pague, baño berdie eon daielea. Lehortzen danien etzeon aman semeik moztuko dunik.

► Zenbat aixkora dauzken?

Neure aixkora bakarra, tio Joxemaik erregalau zinan. Oiñ maletan lau zauzkenat. Bi onak eta bi ordezkuk. Bi txapelketak aixkora beakin atea nixkiñenan. Nere faboriturue hure den.

► Sanferminetako txapelketie bi aldiz irabazi den.

Bai, hiru jokau ditun eta azken biyek irabazi dixkiñet.

Hori hunan nere helburue.

► Aixkorie uztekotan omen habil...

Bai, asko zaitu ber den da. Pixket aspertute're bai, laguntza gutxi ikusten diñet. Gipuzkoko federaziyue ez den beñe saiau, Nafarrokue saiau izen dan bezela. Iñor'e ez den enterau existitzen detenik'e. Gipuzkun bakarra naun, beste biyek naparrak ditun. Naparrotik'e, txapela Gipuzkoa ekartzen diñet eta iñor'e ez den enteratzen.

► Utzi, beti-betireko?

Momentuen bai. Azkeneko exhibiziyue santaluzitan Elosiyan eitie pensan diñet. ■

Nerea Uranga

MUEBLE MACIZO

LASAO[®]

EGURREZKO ALTZARIAK



***Gaztainondo egurrezko
altzariak,
zahar itxurako patina
eta erle argizariz bukatuak***



LASAO MUEBLES, S.L.
Pol. Ind. de Lasao - Apdo. 124 - 20730 AZPEITIA
Tfno.: 943 15 11 82 - Faxes: 943 15 10 98
E-mail: informacion@lasao.com
www.lasao.com





RENAULT *Odriozola*



Auto berriak



Bigarren eskuko autoak



*Mekanika tailerra,
Elektrizitatea, Pintura eta
Karrozeria*




24 orduko grua zerbitzua
TELEFONOA: 689 86 88 61



ZATOZ ETA IKUS!!!

TALLERES ODRIOZOLA, S.L. • Tels.: 943 81 08 08 - 81 08 12 • Fax: 943 81 18 10 • 20730 LOIOLA - AZPEITIA

Argi jokatu zure publizitatearekin



Egin publizitatea uztarrian
azpeitiko herri aldizkarian

Tel.: 943 15 03 58